

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
34/2012	R10/2018	2018-7-27	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Gipuzkoako Foru Aldundia</i>	<i>Pertsona juridikoen helbide fiskala</i>

Ebazpena: 10/2018

Espedientea: 34/2012

Vitoria-Gasteizen, 2018ko uztailearen 27an,

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Ituneko Arbitraje Batzordeak, Gabriel Casado Ollero batzordeburuak eta Isaac Merino Jara eta Francisco Javier Muguruza Arrese batzordekideek osaturikoak, honako hau

ERABAKI DU

Zerga Administrazioko Estatu Agentziak Bizkaiko Foru Aldundiaren aurrean aurkeztutako gatazkaren inguruan, TG SL erakundearen helbide fiskalaren zuzenketari dagokionez, 2004ko ekainaren 10ean eratu zenetik. Gatazka hori Arbitraje Batzordearen aurrean tramitatzen da, 34/2012 espediente-zenbakiarekin, Javier Muguruza Arrese jauna txostengile duela.

AURREKARIAK

1.- Gatazka hori Zerga Administrazioko Estatu Agentziak (ZAEA) aurkeztu zuen, 2012ko urriaren 4ko idazkiaren bidez. Hori hurrengo egunean erregistratu zen Posta Zerbitzuan, eta Arbitraje Batzordeak 2012ko urriaren 10ean jaso zuen. 2017ko urriaren 24an tramiterako onartu zen. Bizkaiko Foru Aldundiak (BFA) alegazioak aurkeztu zituen, 2017ko abenduaren 19ko idazki baten bitartez. Idazki hori egun berean sartu zen Arbitraje Batzordean. Espedientearen berri eman ondoren, BFAk alegazioak aurkeztu zituen 2018ko apirilaren 23ko idazkiaren bidez. Idazki hori hilaren 23an aurkeztu zen. ZAEAk eta TG SL erakundeak ez zuten alegaziorik aurkeztu espedientearen berri eman ondoren.

2.- Espedientearen, gatazka konpontzeko esanguratsuak diren TG SL erakundeari buruzko hurrengo gertaerak jasotzen dira.

- a) Madrilan emandako eskrituraren bidez eratu zen, 2004ko ekainaren 2an, JSA notarioaren aurrean, 2004ko 1502 protokolo-zenbakiarekin. Bizkaiko Merkataritza Erregistroan inskribatu zen 2004ko irailaren 28an.
- b) Holding sozietate bat da, eta bere jardura enpresak finantzatzeko eta enpresa horietan parte hartzean datza. BFAk Enpresak sustatzeko sozietatearen araubidea eman zion 2004az geroztik. Administrazio laguntzailearen kategoria duen langile bat dauka. 2011ko ekainaren eta azaroaren artean beste langile bat kontratatuta eduki zuen kategoria berberarekin.
- c) Bere fundazio-estatutuetan Bilbon ezarri zuen bere helbide soziala.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
34/2012	R10/2018	2018-7-27	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Gipuzkoako Foru Aldundia</i>	<i>Pertsona juridikoen helbide fiskala</i>

- d) Madrilen, LFO notarioaren aurrean (2004ko 2230 protokolo-zenbakia) 2004ko ekainaren 26an, hau da, eratu eta hilabete baino gutxiagora emandako eskritura publikoaren bidez, eta Bizkaiko Merkataritza Erregistroan 2004ko abenduaren 24an inskribatuta, bazkide bakarrak helbide soziala Bilbora lekualdatzeko 2004ko ekainaren 7an hartutako erabakia publiko bihurtu zen. Helbide hori M SL sozietateak ustiatzen duen negozio-zentro batena da. ZAEAREN 2012ko maiatzaren 25eko eginbidean honako hauek agerrarazi ziren: a) TG SLk 2012ko ekainaren 10ean zerbitzugintzako kontratua sinatu zuen haiekin; b) TG SLren ordezkari gisa kontratua sinatu zuen ordezkariak berak negozio-zentro horrekin beste zazpi kontratu sinatu zituen, beste hainbat sozietaterentzat; c) TG SLren izenean heltzen zen korrespondentzia nahiz erakunde horren ordezkari berbera den horrek sinatutako kontratua zuten gainerako sozietateen korrespondentzia, Madrilera igortzen ziren, Zentroan baja eman zitzaizen arte; d) TG SLri eta gainerako sozietateei ez zitzaizen sekula kontabilitate-kudeaketako zerbitzurik eman, ezta zerga edo nominen arloko edo kobrantzen eta ordainketen kudeaketako zerbitzurik ere; e) negozio-zentroaren zerbitzuak korrespondentzia jasotzea eta bulegoak eskura jartzea ziren; f) erakundeek helbidea han izan zuten denboran, haien ordezkari bat ere ez zen egon helbide hartan, eta han ez zen bilerarik egin, ezta bezeroen harrerarik ere. g) ez zuten ezagutzen LA, erakundeen ordezkaria, kontratuak sinatu zituen hori, kontratuak Madrilera igortzen zirelako eta handik sinatuta itzultzen zirelako.
- e) Bilbon, 2007ko martxoaren 9an JAIE notarioaren aurrean (2007ko 891 protokolo-zenbakia) emandako eta Bizkaiko Merkataritza Erregistroan 2007ko apirilaren 17an inskribatutako eskritura publikoaren bidez, bazkide bakarrak helbide soziala orduan Albia Eraikinera (Bilbon hori ere) berriro lekualdatzeko 2007ko otsailaren 22an hartutako erabakia publiko egin zen. 2012ko apirilaren 23an ZAEAK Eginbide batean dokumentatu zuen helbide hartan egindako bisita baten emaitza. Bisita horren arabera, a) GPren ordezkari bat zen, sozietate horren webgunean agertzen denez; b) atean zegoen plakak zioenez, GPren izenaren azpian beste hamahiru sozietate agertzen ziren, besteak beste TG SL; c) TG SL lokal horren errentaria zen, 2007ko otsailaren 1eko kontratu baten arabera; d) era berean, TG SLk helbideratzeko eta/edo zerbitzugintzako kontratuak sinatuta zeuzkan aipatutako lokalean helbideratutako beste hamasei sozietaterekin; hain zuzen ere, sozietate horiei negozio-zentro baten berezko zerbitzuak ematen zizkien.
- f) Sozietatea eratu zenetik, administratzaile bakarra JGLA da, eta administratzaile bakar horrek Bizkaian du helbide fiskala. ZAEAK gatazka bat dauka planteatuta Arbitraje Batzorde honetan, pertsona fisiko horren helbide fiskalari buruz, eta gatazka hori oraindik ez da ebatzi. 2011ko ekainetik abendura TG SLko langile izan den MRCK adierazi zuenez, LA behin soilik ikusi zuen Bilboko bulegoan. Adierazpen horiek ZAEAK eginbide batean jaso zituen 2012ko apirilaren 24an. LA, 2007 eta 2010 bitartean, sozietateen gaineko zergari lotutako 46 erakunderen

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
34/2012	R10/2018	2018-7-27	Estatuko Administrazioa	Gipuzkoako Foru Aldundia	Pertsona juridikoen helbide fiskala

administratzaile gisa agertzen da. Erakunde horien artean 34k helbidea Madrilen dute.

- g) Sozietatearen ahalordedun gisa hamaika pertsona fisiko daude inskribatuta Merkataritza Erregistroan. Pertsona horien artean zazpik euren helbidea Madrileko Doctor Fleming kaleko 1 zenbakian zuten, ahalordetze-eskrituraren xedeetarako. Pertsona horien artean sei sozietatearen administratzaile GLAren emaztea, seme-alabak eta koinata dira. Ahalordedun batek deklaratu du Gasteizen duela helbidea, eta beste bik Palma de Mallorcan dutela.
- h) TG SLk banku-kontuak honako erakunde hauetan dauzka edo eduki ditu: Banco Sabadell, Valladolideko sukurtsal batean; Banco Santander, Madrilgo sukurtsal batean; Bankinter, Madrilgo sukurtsal batean eta Bilboko sukurtsal batean; MN, Palma de Mallorcako sukurtsal batean; Banco Gallego, Madrilgo sukurtsal batean; BBK, Bilboko sukurtsal batean. Banco Gallegorekin Madrilgo sukurtsaletan kontratatutako bi kreditu-polizaren titular gisa ere ageri da, baita banku horrekin berarekin kontratatutako bi hipoteka-maileguren titular gisa ere; horiek Madrilen emandako notario-eskrituretan formalizatu ziren.
- i) Notario-protokoloaren indizean agertzen diren 2007-01-21etik 2011-09-20era bitarteko datuetan agertzen denez, TG SLk guztira 169 eskritura publikotan esku hartu zuen. Eskritura horietatik, 16 Bilbon eman ziren, eta 106 Madrilen eman ziren. Horietatik guztietatik 43 soilik izan ziren salerosketakoak. Gehienak finantza-eragiketakoak ziren.
- j) TG SLko bazkide bakarra BG SL sozietatea da. Sozietate horren zerga-egoitza Bilbon egon zen, eta geroago ere Bilbon, hau da, TG SLren helbideetako bitan. Espedientean dagoen kontratu batean agertzen denez, sozietate horrek deklaratu du helbidea Donostian (Gipuzkoa) duela, eta beste kontratu batean aurreko izendapenarekin agertzen da (PASI); kontratu horren arabera helbidea Madrilen du.
- k) TG SLren administrazio-kudeaketari dagokionez, 2012ko apirilaren 27ko eginbidean bere ordezkariak ZAEARI adierazi zioten administrazio-kudeaketaz BCO langilea arduratzen zela. Ageri denez, pertsona hori erakundeak kontratatuta dauka administrari laguntzailearen kategoriarekin. Ageri denez, halaber, PSI SL erakundeak hileroko fakturak igortzen dizkio TG SLri, kontzeptu honekin: «Administrazioagatik komisio-ziurtagiria: Kontura, sozietatea administratu, kudeatu eta kontrolatzeagatik, bai eta kontabilitatea eta balantzeak egiteagatik, ... ekitaldiko Estatuko eta Udaletako zergen obligazio fiskalen aitortpenak betetzeagatik». Helbidea Bilbon duen PILI SL sozietateak inoiz ere ez du langile bat altan eduki Bilboko lantokietan. 2008-1-1etik 2012-5-20ra bitarteko epealdian 29 langile izan zituen Madrilgo lantokiari atxikita, 6 langile Balearretakoari, eta 17 Valladolidekoari. EJZn alta emanda dago, Finantza eta Kontabilitateko Zerbitzuen epigrafean, Madrilen.

Espedientea	Ebazpena		Eragindako administrazioak		Kontzeptua
34/2012	R10/2018	2018-7-27	Estatuko Administrazioa	Gipuzkoako Foru Aldundia	Pertsona juridikoen helbide fiskala

- l) ZAEAk 2007ko uztailaren 6an PILI SLren bulegoan (Madrileko Doctor Fleming kalea, 1) formalizatutako eginbidean, sozietate horren finantza-zuzendari den JAGFren adierazpenak jasotzen dira. Dioenez, helbide horretan TG SLk inoiz ere ez du izan jarduerarik, ezta helbide sozial edo fiskalik ere, eta dioenez, halaber, dakenez, erakunde horren helbidea Bilboko Done Bikendi kaleko 8an dago, eta administratzailea GLA da, hiri horretan bertan helbidea duena. Dioenez, TG SLri buruz hori daki PILIk erakunde horrekin zerbitzuen kudeaketako kontratua daukalako (zerga-arloko aholkularitza, aholkularitza juridikoa eta abar).
- m) 2012ko apirilaren 24an, hitzordua telefonoz ezarri ondoren, ZAEAk Eginbidea egin zuen TG SLren helbidean (Bilbon, deklaritzen dutenaren arabera). Eginbide horretan, sozietatearen administratzaileak, LAk, aktuarioei sozietatearen aktaliburua eta bazkideen erregistro-liburua erakutsi zizkien. Era berean, 2011n jasotako eta igorritako fakturak, langileen lan-kontratuak eta sozietateak emandako eskritura eta kontratu batzuk aurkeztu zituen.

3.- ZAEAk, kontuan hartuta TG SLren helbide fiskala, eratu zenetik, Bizkaian oker ezarrita dagoela, 2012ko uztailaren 25ean helbidea aldatzeko prozedura hasi zuen. Tramite horiek gatazka planteatzeko idazkian azaltzen ditu. Tramite horiek amaitzean desadostasuna sortu zen, eta horren ondorioz prozedura hau hasi zen. Prozedura hori 2012ko urriaren 10ean sartu zen Arbitraje Batzordean, hilaren 5ean Posta Zerbitzuan aurkeztu ondoren, hau da, Erregelamenduaren 13. artikuluan ezarritako epeen barruan.

Zerga Administrazioko Estatu Agentziak Arbitraje Batzordeari eskatzen dio «aitortzea TG SL erakundeak (IFZ: B953117384) Madrilen izan duela zerga-egoitza 2004-06-10etik».

4.- ZAEAREN uzi horren aurrean, BFAk Arbitraje Batzordeari eskatzen dio zehaztea «TG SL erakundearen zerga-egoitza Bizkaiko Lurralde Historikoan zegoela».

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

1. Gatazka hau Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren 43. artikuluen aplikazioaren bidez konpondu behar da; hori maiatzaren 23ko 12/2002 Legearen bidez onartu zuten, eta pertsona juridikoen helbide fiskala zehazten du:

43. artikulua. Ohiko bizilekua eta helbide fiskala

(...)

Lau. Ekonomia Itun honen ondorioetarako, jarraian aipatuko direnek zerga-egoitza Euskadin dutela uste izango da.

(...)

Espedientea	Ebazpena		Eragindako administrazioak		Kontzeptua
34/2012	R10/2018	2018-7-27	Estatuko Administrazioa	Gipuzkoako Foru Aldundia	Pertsona juridikoen helbide fiskala

b) Pertsona juridikoak eta sozietateen gaineko zergaren menpean dauden gainerako erakundeak, Euskadin baldin badute sozietate-egoitza eta, betiere, sozietate-egoitza horretan badin badute zentralizatuta administrazio-kudeaketa eta negozioen zuzendaritza, Edo, bestela, kudeaketa edo zuzendaritza hori Euskadin egiten bada. Irizpide horiek erabilia bizilekua non duten jakiterik ez badago, ibilgetuaren baliorik handiena duteneko tokia hartuko da kontuan.

(...)

2. Beraz, gatazka honen ebazpenak eskatzen du zehaztea, Ekonomia Itunaren 43.Lau b) artikulua araberak, TG SL erakundearen kudeaketa administratiboa eta negozioaren zuzendaritza Bilbon edo Madrilen ote zeuden eraginkorki zentralizatuta, eraketaren unean. «Kudeaketa administratiboaren eta negozioen zuzendaritzaren» ideia kontzeptu juridiko zehaztugabea da, eta horren zehaztapenak kasuaren zirkunstantzia guztiak kontuan hartzea behar du. Toki hori ezarri ahal izan ezean, soilik, izango litzateke kontuan manuaren azken tartekian aurreikusitako ibilgetuaren balio handienaren kokapenaren irizpide gehigarria.

3. Gatazkaren funtsean sakontzeko, honako hau gogoratuko dugu, 2011ko urriaren 13ko Auzitegi Gorenaren eskutik (5908/2000 Kasazio-errekurtsoa): «Egoitza sozialarekiko kontzeptu autonomoa den helbide fiskala bat dator horrekin, bertan kudeaketa administratiboa eta negozioen zuzendaritza modu eraginkorrean zentralizatuta daudenean; aldiz, hori gertatzen ez bada, kudeaketa- edo zuzendaritza-tokia da». Alde horretatik, Arbitraje Batzorde horrek jadanik aitortu zuen honako hau 2009ko martxoaren 6ko 4/2009, 2011ko abenduaren 22ko 29/2011 eta 2015eko uztailaren 16ko 14/2015 Ebazpenetan: «Pertsona juridikoen helbide fiskala zehazterakoan, axola duena ez da egoitza soziala; aldiz, irizpide erabakigarria horren kudeaketa administratiboaren eta negozioen zuzendaritzaren kokapen eraginkorra da. Hori gai konplexua da, horren inguruak ez baitira definitzen. Helbide fiskalaren kokapena frogatu egin beharko da, beraz, baldintza horiek toki jakin batean gertatzen direla egiaztatuta. Froga ez dago tasatuta; are gehiago, lege-mailan, ez da jarraibiderik ezartzen horren inguruan, ezta adierazgarri bezala».

4. Kudeaketa administratiboaren eta negozioen zuzendaritzaren tokia gai taktikoa denez, kontuan izan behar dira espedientean agertzen diren elementu frogagarri ezberdinak (administratzaileen eta ahalordedunen helbidea, erakundearen helbide fiskalera egindako bisiten emaitza, ikuskatzaileek gertaerak jasotzeko egindako txostenak eta eginbideak, erakundeak kudeaketa administratiboa gauzatzen duela adierazten duen kokapenean dituen baliabide pertsonalak, administratzaileek eta ahalordedunek emandako eskritura publikoak formalizatutako tokiak, kontu korrontek kokatutako tokiak, egoitza sozialeko higiezinak izateko titulua, eta abar); izan ere, horiek guztiak datu oso esanguratsuak dira edo izan daitezke, erakundearen helbide fiskala zehazteko.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
34/2012	R10/2018	2018-7-27	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Gipuzkoako Foru Aldundia</i>	<i>Pertsona juridikoen helbide fiskala</i>

5. Espedientean egiaztatuta geratu da erakundeak Bilbon langile bat bakarrik izan duela administrari laguntzailearen kategoriarekin, eta beste bat bost hilabeteko epe labur baterako kontratatuta izan zuela 2011n. Era berean, kontabilitate- eta zergakudeaketako zerbitzuak zein sozietaterekin dauzkan kontratatuta, horrek Bilbon ez du inoiz ere enplegatutik eduki, funtsean Madrilen dauzka, hain zuzen ere Doctor Fleming kaleko 1ean; hor bertan kokatu nahi du ZAEAk sozietatearen helbidea, bere ustez hor garatzen direlako sozietatearen zuzendaritza eta kudeaketa. Sozietateko ahalordedun batek ere ez du helbidea Bilbon; haietariko gehienek (11tik 7k) helbidea Madrilen daukate. Horretatik nekez ondorioztatzen da sozietatearen kudeaketa Bilbon egin ahal dela.

6.- Sozietatearen administratzaile bakarrari, LARI dagokionez, haren helbide fiskalari buruz planteatuta eta ebazteke dagoen gatazkan Arbitraje Batzorde honek erabaki ahal duenari kalterik egin gabe, ohar hau egin behar da: 2007-2010 epealdian, TG SLko administratzaile zen, titular bakar gisa, eta aldi berean beste 46 erakunderen administratzaile ere bai; horietatik 34k helbidea Madrilen zeukaten, eta hortik objektiboki ondorioztatu ahal da bere lan-denbora gehiena ezinbestean helbide horretan garatu behar zuela.

7. TG SLren egoitza, Bilbon, 2004ko ekainaren 26aren eta 2007ko martxoaren 9aren arteko epealdian, negozio-zentro batean egon zen, eta negozio-zentro horrekin kontratatuta zeukan zerbitzu bakarra instalazioak helbideratzea eta eskura jartzea zen; gainera, ez dago egiaztatuta instalazio horiek erabili ere egin zituenik. Zentroko arduradunen adierazpen bat ageri da. Arduradun horiek diotenez, epealdi hartan sozietateko kide bat ere ez zen han egon, eta administratzaile bakarra ez zuten ezagutu ere egin. Era berean, arduradun horiek adierazi zuten, TG SLk helbide hartan jaso zuen korrespondentzia guztia Madrilgo Doctor Fleming kaleko 1era birbidaltzen zuten.

8. 2007ko martxoaren 9tik sozietateak bere helbidea Bilbon izan zuen, negozio-zentro baten baldintza berberetan, eta egoitza hura beste 16 sozietaterekin partekatzen zuen. Egia da ZAEako agenteek helbide hartan egindako bisita batean, helbide hartan bertan administratzaile bakarrak berak akten eta bazkideen liburuak eta sozietatearen jarduerari buruzko bestelako dokumentazioa erakutsi zizkiela; hala ere, kontuan hartu behar da bisita hura aurretiaz hitzartu zela, eta bisita hartan gertatu zena, batere espontaneotasunik gabeko egoera batean, guztiz bestelakoa da sozietatean 5 hilabetez enplegatuta egon zen pertsonaren adierazpenekin alderatuta; hain zuzen ere, pertsona hark esan zuenez, denbora hartan behin bakarrik ikusi zuen administratzailea egoitza hartan.

9. TG SLren titulartasuneko zazpi banku-kontu aurkitu dira; horietatik bi soilik daude irekita Bilboko banku-bulegoetan. Sozietateak 163 eskrituratan esku hartu zuen, lau urte baino gehiagoko epealdi batean, eta 43 soilik egin ziren salerosketa baterik, eta Bilbon hamasei soilik eman ziren. Bi egitate horiek eta esaten dena, hau da, zuzendaritza eta kudeaketa Bilbon egiten zirela, ez datoz bat.

<i>Espedientea</i>	<i>Ebazpena</i>		<i>Eragindako administrazioak</i>		<i>Kontzeptua</i>
34/2012	R10/2018	2018-7-27	<i>Estatuko Administrazioa</i>	<i>Gipuzkoako Foru Aldundia</i>	<i>Pertsona juridikoen helbide fiskala</i>

10. TG SLk kontabilitate- eta zerga-kudeaketa sozietate batekin kontratatuta zeukan, eta sozietate horretako finantza-zuzendaria ere Madrilen aurkitu zen; bada, jakina denez, finantza-zuzendari hark ZAEako aktuarioei esan zien sozietateak helbidea Bilbon zeukala. Horri dagokionez, esan behar da testigantza horri ezin zaiola frogabaliorik eman, azaldu diren kontrako zantzu guztiak kontraesateko.

11. Espedientea ikusita, ondorioztatu behar da, eratu zenetik TG SL erakundearen helbide fiskala Bilbon izatearen uziak ez duela nahikoa frogarik, eta horrek talka egiten duela kokapen horretatik argi eta garbi bereizten duten jasotako gertaeren zein seinaleen kopuruarekin eta sendotasunarekin.

12. Hitz batez, egitezko elementu eta azaldutako zirkunstantzia guztien baterako balorazioa dela eta, ondorioztatzen dugu, gatazka honetako erakundearen administrazio-kudeaketa eta negozioen zuzendaritza ez direla Bilbon gauzatu, eratu zenetik. Zirkunstantzia gehienek norabide horretan seinalatzen duten bitartean, erakundearen kudeaketa administratiboa eta negozioen zuzendaritza Bilbon kokatu nahi dutenak eskasak eta hutsalak dira.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak honako hau

ERABAKITZEN DU

1.- Deklaratzea TG SLren helbide fiskala, 2004ko ekainaren 10ean eratu zenetik, lurralde erkidean egon dela, zehazki Madrilen.

2.- Erabaki hau Zerga Administrazioko Estatu Agentziari, Bizkaiko Foru Aldundiari eta TG SL erakundeari jakinaraztea.